



Ekonomiak suspertzeko prozesu motel bati ekin dio

Abuztuan baieztatu ziren Europako ekonomiarako iragarpen txarrak eta Eurostatek bake garaian aurrekariarik ez duten BPGaren hazkunderari buruzko datu batzuk argitaratu zituen. Zehazki, **Europako herrialde garrrantzitsu guztiek %10,0 baino gehiago murriztu zuten BPGa urte arteko tasan**. Eszenategi horretan, mugak Alemanian $-%11,3$ eta Espainian $-%22,1$ daude. Azken herrialde horretan, turismoak pisu handiagoa izateak eta agintariek atzerrira bidaiatzeko ezarritako murrizketek zigortu egin zituzten, oro har, zerbitzuen mende gehien dauden herrialdeak.

Baina hori bigarren hiruhilekoan izan zen, eta dagoeneko bete-betean sartuta gaude hirugarrenean. Orain gauza batzuk aldatzen hasi dira. Sentimendu ekonomikoa da horietako bat. Hain zuzen ere, adierazle horrek apirilean erakutsi zuen bere unerik ezkorrena, baina ordutik sentsazioak berreskuratzen joan da, nahiz eta egonkortasuneko egoerara iritsi gabe, 100eko balioa jasoko baitzuen. **Eurogunean, apirilaren 64,9tik abuztuaren 87,7ra igaro da, lau hilabeteen hogeitun puntu baino gehiago hobetuz**. Bilakaera antzekoa da herrialde guztietan, nahiz eta Espainiaren kasuan uztaileko gehiegizko baikortasunak beherantzko zuzenketa txiki bat egiteko pausoa eman duen abuztuan, baina hil horretako 88,1 ez da batez bestekoaren desberdina. Zerbitzuak eta txikizkako merkataritza dira, hain zuzen ere, hilabete horretan atzera joan direnak.

Industria pixkanaka indarra berreskuratzen ari da. Hori da sentimendu ekonomikotik ondorioztatzen dena, baina baita ekaineko industria ekoizpenaren datuetatik ere. Europaren kasuan, zifrek adierazten dute apirileko urte arteko $%28,6$ ko jaitsieraren ondoren, euroaren eremuan ekainean $-%12,3$ ra leundu zen jaitsiera tasa. Espainian, apirileko eta ekaineko tasak $-%34,8$ eta $-%14,1$ izan dira, hurrenez hurren. Euskadi ez da salbuespena bilakaera positibo horretan, unearen larritasun handiaren barruan, eta haren industriaren ekoizpena $-%39,1$ etik $-%17,8$ ra igaro zen aldi horretan. Laster ezagutuko dira uztaileko datuak eta ziu-rrerik joera bera jarraituko dute.

EAEko lan merkatuak industriaren antzeko irudia ematen du, hau da, oraindik ez ditu berreskuratu pandemia agertu aurreko balioak, baina hilabetez hilabete murrizten ari da hark utzitako eragin negatiboa. Errealistak izanik, **goiz da EAEko ekonomia ahul batek enplegu garbia sor dezan**, gutxienez urte arteko tasan. Gehienez ere, lanpostuen galera murriztea da helburua, eta hori lortzen ari da. Ekainean, afiliazioak urte arteko $%3,1$ murriztu ziren, uztailean jaitsiera tasa $%2,8$ izan zen eta abuztuan, berriz, jaitsiera $%1,9$ ra mugatu zen. Askok falta da galdutako mailara itzultzeko, baina pausoak ematen ari dira.

Ilido beretik, **kontratazioan suspertze leuna nabaritzen hasi da**. Uztaile eta abuztua bitartean, 100.000 kontratu baino zertxobait gehiago sinatu ziren, 2019ko epe horretan adostu zirenak baino $%31$ gutxiago, baina kontuan hartu behar da apirilean eta maiatzean kontratazioaren jaitsiera $%60$ tik gorakoa izan zela. Horrek langabeziaren gorakada geldiarazi du. Egia da langabeziak gora egiten duela nabarmen oraindik, baina ekaineko urte arteko $%29,7$ ko igoeraren ondoren, abuztuan erritmoa moteldu egin zen, $%26,2$ raino. Urrats txikiak dira oraindik, baina norabide egokian.